

DEFENDATZEN JARRAI DEZATEN

Giza eskubideen
emakume
defendatzaileak.
Aldi baterako
babesaren
analisi Espainiako
estatuan



Defendatzen jarrai dezaten

Giza eskubideen emakume defendatzaileak. Aldi baterako babesaren analisia Espainiako estatuan

Iruñea – 2023ko martxo

EGILEA: Mugarik Gabe Nafarroa

ITZULPENA: AEK-Euskaratu itzulpen- eta zuzenketa-zerbitzua

AZALAREN DISEINUA: Nohis

MUGARIK GABE NAFARROA

Gure erakunde gaur egungo garapenerako eredia salatzea dugu helburu, desberdintasunen sorburu nagusia baita, eta Hegoalde eta Iparraldeko herrien arteko elkartasuna eta tokiko sensibiltasunak lantzen dugu. Giza eskubideen defentsaren aldeko eta bake eta desmilitarizazioaren aldeko kultura baten sorrera bultzatzen dugu.

www.mugarikgabenafarroa.org

info@mugarikgabenafarroa.org

948 10 73 37 / 633 50 60 55

Zapateria kalea 31-1, Iruñea

Creative Commons lizentziarekin argitaratutako lana. Erreprodukzio osoa eta partziala baimentzen da, honako baldintza hauek betez gero:

- Aitortu: Materiala hirugarren pertsonak banatu, kopia eta erakutsi dezakete, kredituetan aipatzen bada.
- Ez komertziala: Jatorrizko materiala eta lan eratorriak banatu, kopia eta erakutsi egin daitezke, erabilera komertziala ez duen bitartean.
- Berdin partekatu: Jatorrizko materialetik sortutako, eraldatutako edo nahastutako materiala jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu behar da.



Dokumentu hau "Defendatzaileak / Lucha de mujeres y colectivos del Sur por los Derechos Humanos" izeneko proiektuaren baitan garatu da, Fundación IPESekin batera eta Iruñeko Udalak eta Mugarik Gabe Nafarroak finantzatu dute. Argitalpen honen edukia Mugarik Gabe Nafarroako taldearen ardura da, eta ez du Iruñeko Udala engaiatzen, proiektuaren finantzatzaile den arren.

Sarrera

Defendatzaileak heriotza-ereduaren aurka

Iparralde globala eta Hegoalde globala egungo sistema nagusia sostengatzen duten bi esparru geopolitiko eta ekonomiko handiez mintzatzeko aipatzen ditugu. Alde batetik, herrialde aberastuak, gaizki izendaturiko “garatuak”, eskura dituzten lehengaiak baino gehiago erabiltzen dituztenak. Bestetik, herrialde pobretuak, estraktibismoaren bidez herrialde aberastuen kontsumo-mailari eusteko baliatzen diren ondasun natural gehienak dituztenak. Zatiketa hau, enpresa transnazional handietako administrazio-kontseiluetan ezartzen diren interesek eta erabakiek bultzatua, zuzenean dago lotuta giza eskubideen eta lurraren eskubideen urraketarekin.

Garapen-eredu honek, gero eta lehengai gehiago behar dituenak, proiektu estraktibistak eta gatazka sozioekologikoak ugaritzen ditu¹. Transnazionalak beren irabaziaz biderkatzen dituzte, meatzaritzako megaproiektuak, petrolioarekin lotuak, hidroeletrikoak, nekazaritza industrialekoak edo azpiegiturretara bideraturikoak ezarriz; horren gizarte- eta ekologia-kostuak, aldiz, landa-, nekazaritza- eta indigena-komunitateek ordaintzen dituzte, eta, zehazki, emakumeen gorputzek eta beste gorputz disidente batzuek.

Sindemiaren² testuinguruan, jarduera estraktibistak ere hazten jarraitu zuen. Larrialdi-egoerak deklaratu eta nahitaezko gizarte-isolamendurako neurriak ezarri ziren garaian, proiektu estraktibistek lehenetsunezko tratua jaso zuten. Krisitik ateratzeko bide gisa legitimatzeko ahalegina ere egin zen. Mexikon, adibidez, megaproiektuak “oinarritzko jardueratzat” eta “ekonomia suspertzeko funtsezkotzat” jo ziren³.

Halere, badira interes korporatiboei aurre egiten dietenak eta beren herrien, lurraldearen eta lurraren eskubideen alde borrokatzen direnak. Defendatzaileak dira. Bizitza defendatzeaz gain, beren borrokekin mundu-mailako klase kapitalistaren interesak asetzera bideratutako garapen kolonial eta patriarkalaren ereduaren aurka egiten dute. Bestalde, borroka hori garesti

ordaintzen dute: Global Witness-en arabera, 2021ean 200 defendatzaile erail zituzten, batez beste ia lau astero⁴. Hilketak icebergaren muturra besterik ez dira; bizitza defendatzen dutenak isilarazteko taktiken artean, mehatxuak, atxiloketak, zaintza, estigmatizazioa eta jazarpena daude, beste eraso fisiko, legal eta sozial batzuen artean.

Nazioarteko Lankidetzaren alorreko GKEa garen aldetik, jakin badakigu garapen-eredu honek giza eskubideak urratzen dituela, eta aitor dugu giza eskubideak defendatzen dituzten kolektiboen eta norbanakoen zeregina funtsezkoa dela oraindik ere jendarte bidezko, sentibera eta solidarioagoaren aldeko borrokan. Alabaina, kolektibo eta norbanako horiek beren lurraldeetan jasaten dituzten mehatxuak ez dira urrituko, eta gero eta defendatzaile gehiago daude beren sorterritik alde egin beharrean. Alde horretatik, GKE, Iparraldeko gizarte eta harrera-lurralde gisa interpelatuta sentitzen gara, eta erantzun egin nahi dugu. Giza eskubideak defendatzen dituen hori babesteko betebeharrean egun zein paper jokatzan ari garen jakin nahi dugu.

Agiri hau defendatzaileen testigantzen bilduma da, ahots horien, hainbat kolektibo eta erakunderen ekarpenen, eta gogoeten bilduma. Gaia ezagutzeko ekimena, gizarte-etzabaidari ekarpena egiteko eta, eraldatzeko helburuz, garapen-eredu honen gaineko kontzientzia kritikoa sortzen jarraitzeko. Halaber, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren arloko erakunde eta GKEendako dokumentua ere bada, defendatzaileen lana babes dezaten eta lan hori egiten jarraitu ahal izateko neurriak har ditzaten.


Nondik abiatzen gara? Nortzuk dira emakume defendatzaileak?

Defendatzaile terminoa bizitza, norberaren komunitatea eta lurraldea defendatzen dituen pertsonari buruz hitz egiteko erabiltzen dugu. Nahiz eta kontzeptua Hegoaldean hedatuago egon, gogorazazi nahi dugu estraktibismoak berdin jarduten duela Iparraldean ere, eta hemen ere egon badaudela gizarte-desberdinkeriei eta bidegabekeriei aurre egiten dieten defendatzaileak, Hegoaldean bezala jazarriak eta erailak, Helena Malenok kontatu bezala⁵.

Zehazki, **andre defendatzaileengan** jarriko dugu arreta, andre izateagatik jasaten duten indarkeria bereizia ikustarazteko. Jasaten dituzten erasoak beren sexualitatearekin lotuta daude, eta jasotzen dituzten mehatxuak, berriz, beren gorputzekin, sexu-indarkeriarekin, beren familiekin eta seme-alabekin. Muturreneko indarkeriari dagokionez, emakumezkoen erailketa komunitateak izutzeko asmo politikoari zor zaio, lurralde-feminizidioa da.

Abya Yala-ko⁶ pertsonen eta kolektiboen testigantzak bilduta, eskualde horretako kasuak aipatuko ditugu, gurekin elkarlanean jarduten duten erakundeak Latinoamerikako herrialdeetakoak direlako, batetik, eta, bestetik, eskualde hori munduko arriskutsuenetakoa delako giza eskubideak defendatzeko; hain zuzen ere, 2019an, Kolonbian erregistratu ziren defendatzaileen aurkako eraso gehien mundu osoan⁷.

Mehatxatutako defendatzaileek beren **lurraldetik alde egitea** ez da helburua berez, baizik eta azken aukera gainerako segurtasun-neurriek eta -protokoloek jada ez dietenean segurtasuna bermatzen. Badakigu defendatzaileen defentsarik onena dela beren lurraldean giro seguruan lan egiten jarraitzea bermatzen duena, baina jakitun gaude, halaber, defendatzaile batzuek ezinbestean alde egin behar dutela. Horregatik, agiri honetan Espainiako Estatuak, besteren artean, defendatzaileei egin beharreko harrera jorratu nahi dugu, horrela Iparraldeko gizartea garen neurrian gure erantzukizuna sakonago aztertzeke eta betetzen ari garen eginkizunari buruz hausnartzen jarraitzeke.



¹ Ingurumen-justiziaren munduko mapa:

<https://www.ejatl.org/?translate=es>

² IM-Defensoras erakundearen koronabirusak areagotutako krisiaz aritzeko darabilten terminoa baliatu dugu. Sindemia hitzak osasun-egoera jakin batek gizarte- eta ingurumen-baldintzekin interakzioan duen inpaktu handiagoari egiten dio erreferentzia, kontuan hartuta baldintzok biztanleria zaugarriagoa bilakatzen dutela osasun-egoeraren inpaktuekiko. "Des-hilar la crisis, tejer futuros. Impactos de COVID-19 sobre la vida y las luchas de las defensoras mesoamericanas de derechos humanos" txostena. Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimena. (Alpizar, L. López Cruz, M. eta López Deloya, E., 2021).

³ "Defender derechos en tiempos de covid. Balance regional de las condiciones para la defensa de derechos humanos y la libre expresión en México y Centroamérica" txostena, 2020.

⁴ GobaI Witness, 2022.

⁵ Muñoz, L. (2019). *Helena Maleno: "En Europa se persiguen a defensoras de derechos humanos"*.

<https://www.pikaramagazine.com/2019/07/helena-maleno/>

⁶ Termino hau, "lur heldu" esan nahi duena, kontinenteko jatorrizko herriek beren burua idendatzeko erabiltzen dute, Amerika bazter utzirik.

⁷ GobaI Witness, 2020.

Dalila Argueta

Defendatzaile bat besarkatzea herri bat besarkatzea da, borroka bat besarkatzea

Dalila Argueta Guapinolekoa (Honduras) da, 2017tik Inversiones Los Pinares enpresaren aire zabaleko meategiaren aurkako borroka nekazinari aurre egiten ari zaien komunitatekoa; izan ere, meategiak lurraldea zeharkatzen duen ibaia kutsatzen du. Gogoan du komunitatera heltzen zen ura kafe-kolorekoa zela ikusi zuten egun zehatza, apirilaren 26a, hain zuzen ere; orduan, bat-batean, egoerari aurre egiteko antolatatu behar izan ziren.

Dalilak bere gorputza jarri du borroka honetan, zeinak, azkenean, deserrira eraman duen, egun batetik bestera bere familia, lurra eta ibaia sorterrian uztera beharturik.

2022ko irailaren 18an eginiko elkarrizketa.

Nor da Dalila?

Jaioterritik alde egitea egokitu zaión eta bere lurra defendatzeagatik deserrira jasan behar duen defendatzailea. Bi istorio desberdin bizi izan dituena, baina bietan borroka berari eutsiz, sentimendu berari, besterengandik ikasiz eta bizi izandakoaren berri emanez, beste batzuek nigandik eta nire herritik ikas dezaten. Lurra defendatzen duen emakumea naiz, lurra maite duena, andre ernea, maite duenaz, nahi duenaz eta bere duintasunaren balioaz jabeturik dagoena.

Zuretzat zer da defendatzailea izatea? Defendatzailea zer da?

Hitzak berak dio: defendatzen duena. Eta defendatzen hasten zarenean, zeure buruaren, zeure izanaren, zeure gorputzaren, lehen lurralde horren, defentsa duzu abiapuntu.

Defendatzailea izatea lurrarekiko maitasunari buruz esan ditzakegun hitz politez harago doa, horrekin batera minez, beldurrez, zauriz, indarkeria ugariz, beste gauza batzuen gabezia frankoz beteriko istorioak baitatöz.

Bidean, defendatzaileok gauza anitz ikasten ditugu, ohartzen gara zenbait kontu normalizatu ditugula zintzoak izatea ere inposatu digun testuinguruan bizi garelako. Erljioaren bitartez, andrazkook menderatuak, esanekoak, ama onak, alaba zintzoak... zuzenak izan behar dugula. Baina, benetan, zer da zintzoa izatea, zuzena izatea? Eta errebeldia lotsagabekeria baldin bada, bedeinkatuak errebeldia, egungo ni izatera bultzatu nauen guztia eta errebeldia horrek esnatu zuena. Eta, beste emakume batzuekin batera esnatuta, geure burua hortzez eta haginez defendatzera abiatu ginen.

Defendatzailea izatea dena defendatzeko jarduna garesti ordaintzea da, ez da buruzagia izatearekin edo hor egotearekin dugun maitasun-harremana. Gure eskubideak ez ezik, bizitza, inguratzen gaituen guztiaren bizitza, lurraren eskubidea ere defendatzen ditugulako. Izan ere, guk ez dugu lurraren gaineko eskubiderik, lurra berezkoak ditu eskubideak, eta gu hark ematen digunaz baliatzen gara.



Orduan, nork defendatzen ditu defendatzaileak?

Beste andre batzuek. Emakume-sareek, egoerez jabetuta elkarren artean antolatzen garen eta elkarrekin gabiltzan, geure burua lehenesten dugun, gure arriskuak minimizatu gabe diren bezalakoak ikusten ditugun andreok osatutako sareek.

Lurralde-mailan sare gisa antolatzen eta, era berean, nola gauden eta nola sentitzen garen aztertze biltzen garenok; hala norberaren nola kolektiboaren zaintza lehenesten dugu, eta eremu beren barruan batzuetan sortzen diren zauri horiek sendatzen ditugu. Zainduz sendatu, aurrera egiten jarraitzeko. Gure besoak geure arteko zaintza-sarea izateko elkarlotzen ditugu. Elkar zaintzen dugu. Defentsa

horren guztiaren zurrunbiloan, nekeak ere zeharkatzen gaituelako, norberaren familiako borroka zehatzek, erresistentzia horretan jarraitzeagatik geure familiarekin ere borrokatzen baikara etxean. Andreok beste istorio batzuk entzuten ditugunean, gure etxean indarkeria pasiboak ere pairatzen ditugula konturatzen gara. Eta hortik datozen bizipenak dira mingarrienak, gehien zauritzen dutenak, maite ditugun pertsonak sortzen dituztelako, pozoiz jaurtiriko hitza nork esan duen... min handiagoa egiten duelako.

“Sorterritik atera nintzenean munstroa handiagoa dela ikusi nuen. Egun, ez nago soilik Guapinolekin, herri guztien eta nire ahizpa guztien borrokekin ere banago.”

Emakume-sareak eta babes-sareak oso garrantzitsuak izan dira zuretzat zure borroka osoan.

Nire iritziz, sareek bizitza salbatzen dute, eta borrokei eusten diete. Eta defendatzaile baten sendaketa-prozesua besarkatzen duzunean, andre hori ez ezik, herri bat eta oro har borroka bat ere besarkatzen duzu. Ni asko besarkatu naute, makina bat andrazkok, maitasunak bultzatuta hala nahi izan dugulako nire ahizpa bihurtu direnek.

Eta nire herrialdetik ere laguntzen dute. Niretzat, sare nazionala lurralde-mailako familia kolektiboa da, eredu dudana eta badakidana berresten didana: sareak sostenguak dira. Eta sendoak dira emakumeok gaudelako bertan, zaintza-molde berriez erditzen. Emakumezkoen sare nazionalak prozesu askotan laguntzen du nekazaritza-mugimenduetan, lurraldeen defentsan, hidroelektrikoen aurka defendatzen ari diren proiektuetan, meatzaritzaren kontrako kanpamentuetan, garifunen komunitatean. Senidetuta gaude. Oso lan indartsua da, oso garrantzitsua, salatzekoa. Komunitatea eraso izaten ari denean, norbait kriminalizatu dutenean, norbaiten aurkako atentaturen bat izan denean, sarea beharrezko alerta jotzeko dago hor, sareek beren iritzia eman eta gutako bakoitzarekiko jarrera agertzen dute.

Sareak nire sostengua dira. Erdialdeko Amerikako ekimenak begirada zabaldu dit, sorterritik atera

nintzenean munstroa handiagoa dela ikusi nuelako; ni borroka jakin batean sartuta nengoan, baina herrialdetik irten nintzenean alde guztietatik mehatxatuta ikusi nuen, eta izugarria izan zen goitik ikusi ahal izatea eta esatea: “Arraioa! Jaten ari zaizkigu”. Era berean, kanpotik beste borroka batzuek ere jabetzen zara, borroka gehiagok. Egun, ez nago soilik Guapinolekin, herri guztien eta nire ahizpa guztien borrokekin ere banago; ez du axola zein herrialdetakoak diren, nazionalitatea ez zait inporta, kolpeak, balak, haletako bat zeharkatzen badu, poliziak beste andre bat hiltzen badu... neu ere jotzen eta mintzen nau. Horrexegatik erantzuten dugu, horrexegatik “Gutako bat ukitzen badute, denok ukitzen gaituzte” kontsigna.



Dalila Berta Cáceres panelaren ondoan, [“Defendatzaileak. Eraldatzen duten emakumeak”](#) erakusketa. Dalila Iruñera etorri zen NUPen izandako [“Gako feministak garapen askatzaile baterako” XXI jardunaldietan parte hartzeko.](#)



Zure esperientzian oinarrituta, defendatzaileei harrera egitea hobe daitezkeen alderdiak ere identifikatu dituzu.

Nik jasotako laguntzaren artean, asiloa eskatzeko orduan babestu ninduten erakunde guztiena dago, aditzera eman baitzuten nire elkarrizketa, egiten ari nintzen ekarpena, zilegi zela. Nioen guztiaren, jakinarazi nuenaren frogak izan zituzten, baina aldi berean oso bortitza da, gertatzen ari dela dakizuna frogatu behar duzulako. Kale batean Berta Cáceresen izena jartzen dutela ikusi besterik ez dago; hori egin baduzu, badakizu defendatzaileak hiltzen ari direla, buruzagi batzuk erailak izaten ari direla onartzen ari zara, baina gu hil arte ez dugu onartuko? Eta frogatu ezin dutenekin zer gertatzen da? Ez dago astirik hilko zaituenarekin edo eraso egingo dizunarekin argazkia egiteko. Eta ezin dute sinetsi poliziak garbitzen gaituela, oraindik ere “eta ez zenuen salatu?” galdetzen dizute. Nor salatuko duzu, jakinaren gainean militar edo polizia bat salatuz gero etxera etorriko zaizkizula? Edo etxetik irten bezain laster edozein sikariok motor gainean tiro egingo dizula? Nola salatuko duzu hori? Ondorioz, ez zara inorekin fidatzen, ez dutelako ezer egingo.

“Ez dugu militantzia sakrifikaturik nahi, bidean gorputzak utziko dituen militantziarik. Modu osasungarrian militatzeko, aurrena norbera sendatu behar da.”

Zaintzaz lehenatsun gisa mintzatzen zara.

Bai, zaintza psikologikoa ere jorratuko duten programak behar ditugu, pertsonari arnasa hartzeko, sendatzeko, indartsua izateko gunea eskainiko diotenak. Zeren eta kanpora begira lan eta irri egin ahal izateko, gauza mordoa irensten ari baikara. Gehiago ezin duten defendatzaileei ongi ulertzen diet, eskubide osoa dute “ez dut jarraitu nahi, akituta nago” esateko. Ez dugu militantzia sakrifikaturik nahi, bidean gorputzak utziko dituen militantziarik; gero gure hausturak jasan ezin izatea, hain garelako harroak, ezen askotan geu bakarrik hausten garen.

gure hausturak jasan ezin izatea, hain garelako harroak, ezen askotan geu bakarrik hausten garen. Inork ez dezan zein zaurituta gauden edo zein ahulak izan gaitezkeen ikusi, edo, orobat, gure zama ez dugulako inoren bizkar gainean jarri nahi. Modu osasungarrian militatzeko, aurrena norbera sendatu behar da.

Oro har jendarteaz egiten duzun analisi hau hedatu egin liteke. Gure gizartea gaixorik dago, zentzu askotan, ez dugu denborarik, ez dugu geure burua zaintzen... nahiz eta defendatzaileen kasuan agerikoagoa izan.

Nekearen indarkeriak, estres horrenak guztiarenak, guztiok zeharkatzen gaitu. Ez dugu astirik kafea edateko, liburu bat irakurtzeko edo zuhaitz baten azpian hamaka batean etzateko. Bilatu une bat zeure buruarekin egoteko. Isiltasunaren ahotsa entzun ahal izateko. Denbora-tarte laburra, hamar minutu egunean, baina izan daitezela hamar minutu zeuretzat, telefonoak jo gabe, inor deika izan gabe.

Mila kontutan sartuta zaude, baina bazaude zeuretzat? Entzuten diozu zeure buruari? Ispiluan begiratu eta “zein polita nagoen” esaten duzu? Ispilu parean ilea txukuntzeko eta ondoren korrika alde egiteko baino ez gara paratzen. Ez, gelditu egin behar dugu, nor bere burua ikusi, sentitu, nor bere buruari entzun, norberaren gorputzari, eta esan: “Zer dute esku hauek horren nekatuta egoteko? Oin hauek?”. Eta zure gorputzari eskerrak eman, hemen dagoelako, oraindik ere badagoelako.

Horregatik, norberaren zaintza oso garrantzitsua da. Zaintza geure egin behar dugu, gure bizitzaren parte, errutina bilakatu, zaintza eremu kolektibora eraman ahal izateko. Zaintza tresna politiko gisa, halaber, eta erresistentzien elikagai gisa; bakarrik ezin dugulako aurrera egin, beraz, elkartu eta antolatu egin behar gara.

Eskerrik asko, Dalila, zure zintzotasunagatik, zure sendotasunagatik eta zure borroka partekatzeagatik. Mila esker zure hitzengatik, biderka daitezela espero dugu. Bihotzez opa dizugu egunen batean berriro ibili ahal izatea zure ibaiaren ertzean.

Sareek salbatu egiten dute!

Alaba desagertuta dagoelako justizia bilatzen duen ama bat. Publiko, doako, laiko eta kalitatezko hezkuntza aldarrikatzen duen irakasle bat. Soldata hobe eskatzen duen makilako langile bat. LGTBI eskubideen ekintzaile bat. Lurraldea defendatzen duen lider indigena edo nekazaria. Abortuaren despenalizazioaren alde mobilizatzen den gazte bat. Polizia eta krimen antolatua arteko konplizitateak argitaratzen duen kazetari bat...

Giza eskubideen emakume defendatzaileek egunero askatasuna, berdintasuna eta justizia bultzatzen dute, diskriminazio eta bortizkeria inguru batean diharduten arren.

Giza eskubideen defentsak, askotan, akidura fisiko eta mentala dakar berekin. Giza eskubideen defentsarako eta aktibismoarako guneak ez dira idilikoak; maiz, kultura matxista eta patriarkalak blaituta egoten dira, bai besteak bai norbera esplotatzeko kulturak inguratuta. Andrazkoen kasuan, “besteentzat egoteko” genero-aginduen euren ondorioz, faktore horiek areagotu egiten dira.

Giza Eskubideen Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenak (IMD, gaztelaniazko siglak)⁸ aitortzen du defendatzaileen kontrako indarkeria genero-diskriminazioak hertsiki zeharkatuta dagoela, eta babes feminista aplikatzea genero-adierazleak edo defendatzaileentzako berariazko neurriak ezartzeaz harago doala. “Arrisku” kontzeptua ikuspegi zabalarekin hartzen da gogoan, kanpoko faktoreak (mehatxuak, jazarpenak edo difamazioak, kasu) aintzat hartzen dituen ikuspegi tradizionalaz harago; beste faktore batzuei ere heldu behar zaie, hala nola defendatzaileek beren familia-testuinguruetan eta gizarte-mugimenduetan nozitzen dituzten indarkeria matxistari eta diskriminazioari.

Hori dela eta, Ekimena, 2010ean abiatu zenetik, babes integral feminista garatzen ari da, non erabat normalizatuta dauden dinamikak zalantzan jartzen diren, akidura eta sakrifizioa, kasurako; horrez gain, mekanismo berriak garatzen dira, besteren artean erasoan eskualde-mailako erregistro-sistema

propioa⁹. Jomuga da produktibitate-logika bera birsortzen duten eta gauza gehiago egiteko ahalegin amorratuan erortzen diren gizarte-mugimenduak eurak kolokan jartzea, horrek guztiak akidura eragin eta erantzuteko eta artatzeko gaitasuna inhibitzen duelako.

“Zer egin dezakegu gure borrokei iraunkortasuna emateko, gure bizitza sakrifikatu gabe?”

Babes Integral Feministaren eredia ikuskera eta jardunbide politikoa da, defendatzaileen eta haien inguruneetako bizi-kalitatean zuzenean eragingo duten baliabideak eta estrategiak sortzea xede, baldintzak eraldatzeko eta giza eskubideak defendatu ahal izateko.

Eredu honek funtsezko lau oinarri ditu:

- Zaintza aktibismoaren erdigunean jartzea, zaintza honela ulertuta: eskubide gisa; bizitzako sarearekin, bizimodu onarekin eta norberaren ongizatearekin eta ongizate kolektiboarekin berriz lotzen gaituen justiziako ekintza gisa; eredu kapitalistak, arrazistak, patriarkalak eta misoginoak zalantzan jartzen dituen eta bizi nahi dugun mundurako jardunbide politikoa eraikitzen duen ekintza transgresore gisa; eta gure gorputzen eta gogoen kontrako etengabeko indarkeria- eta zapalkuntza-testuinguruan erresistentzia-modu gisa.
- Menderakitzak direla aitortzea. Aniztasuna aitortzea, eta nork bere beharrak eta babesa ulertzeko moduak dituela. Ez dago estandarizatzerik defendatzaile, kolektibo edo erakunde bakoitzak zer behar duen ongizatea lortzeko.
- Testuinguruari eta arriskuari buruzko begirada feminista intersektionala, gure gorputzak eta lurraldeak zauritzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta patriarkala zalantzan jartzen duena.

Genero-diskriminazioak arriskua antzemateko gaitasuna mugatzen du, gizarteak indarkeria normalizatzen irakasten digulako; norberaren segurtasunaren gaineko erabakiak hartzeko boterea murrizten du; eta babes-sareak izateko aukerak gutxiagotzen ditu.

- Sareek salbatu egiten dute! Horixe laugarren oinarriaren laburpena. Babesa ez da norberari bakarrik dagokion gaia, baizik eta prozesu eta gaitasun kolektiboa, defendatzaileen esperientziak, analisiak eta proposamenak beren burua babesteko aitortzen eta balioesten dituen. Babesteko, kideei begirako gorputz-ekintza kolektiboa egin beharra dago¹⁰. Babesik eraginkorra gertukoena da, komunitatean eta lurraldean finkaturiko sare babeslea bultzatzen duena.

Harrera-etxeetan, besteak beste, babes integral feministaren printzipioak gauzatzen dira: norberaren zaintza, zaintza kolektiboa eta sendaketa. IMDk arnasa hartzeko, indarberritzeko eta sendatzeko guneak gaitu ditu. Egun, badira bi babesleku – La Mariana El Salvadorren eta El Abrazo Mexikon –, bi atsedeen-etxe – La Serena Mexikon eta Siguata Hondurasen – eta babesleku seguruen sare bat arrisku handian diren kideen babes-beharrak asetzeko.

Gune horietan, defendatzaileek beren burua zaintzeko, zaintza kolektiborako eta sendatzeko programa garatzen dute, beren beharretan oinarrituta. Emakume defendatzaileentzako berriazko esparruak dira, baina haien senideak edo pertsonarik gertuenekoak ere egon daitezke bertan; izan ere, sarritan, beren seme-alabekin edo hurbileko beste pertsona batzuekin egon ezin direlako ez dute jotzen erabilgarri dituzten babeslekuetara.

“Geure burua sendatzea justiziazko ekintza da, errebeldia duinekoa.”

Sendatzeko etxe hauek erreferentzia ere bihurtu dira planetako beste eskualde batzuetan babes-baliabideak garatzeko¹¹.

Babes-mekanismo hauek guztiak sareak egituratzeari eta sendotzeari esker dira posible, haiek etengabe

jarraitzen dutelako arrisku handiko uneetan larrialdiko birkokapenak egiteko protokoloak eta aliantzak garatzen eta berraztertzen. IMDk eskarmentu garrantzitsua bereganatu du lekualdatzeko bide seguruak antzemanez, mekanismo instituzionalak aktibatuz, bizi duten arrisku-egoeratik alde egin behar duten kideak babesteko eta laguntzeko aliantza-sarea hainbat erakunderekin eraikiz. Harrera-guneak geografikoki eta kulturalki hurbileko tokietan egotea funtsezkoa bada ere, defendatzaileek ez dezaten deserrotze hain handia sentitu, zenbaitetan ezinbestekoa da planetako beste eskualde batzuetara deserriratzea segurtasuna bermatzeko, Europara, kasu.

⁸ Giza Eskubideen Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenak (IMD) 2.000 defendatzaile eta 300 erakunde baino gehiago biltzen ditu El Salvadorren, Hondurasen, Mexikon eta Nikaraguan. Sare honetan egituratuta, Giza Eskubideen Andre Defendatzaileen Mexikoko Sare Nazionala, Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Hondurasko Sare Nazionala, Andrazko Defendatzaileen Salvadorreko Sarea, Emakumezko Defendatzaileen Nikaraguako Ekimena, Elkarrizketa Parlamentariorako eta Ekitaterako Oaxacako Partzuergoa, Emakumeen Erdialdeko Amerikako Funtsa (FCAM), Bidezkoaren alde Elkaturiko Andreak (JASS) eta El Salvadorreko Tokiko Garapenerako Kolektiba Feminista daude.

⁹ “2020. urtera arte, 5.000 defendatzaile pasatxoren kontrako 17.000 eraso baino gehiago dokumentatu ditugu El Salvador, Guatemala, Honduras, Mexiko eta Nikaraguan.” (El pacto de cuidados. 2010-2021: La protección Integral Feminista en Mesoamérica desde la IM-Defensoras, 2022).

¹⁰ Gorputz-ekintza kolektiboa gorputza jartzean datza; lurraldeetan, manifestazioetan, defendatzaileentzako une esanguratsuetan hortxe egotea da, gure besarkada solidarioa, beren borrokei dagokien gure aitortzea eta edozein eraso gertatzen denean ahotsa altatzeko gure konpromisoa senti ditzaten. Ez gaudela bakarrik erakustea da, zeinak, bere horretan, beldurrari aurre egiten eta indarkeriazko testuinguruetan gure borrokekin jarraitzeko moduak aurkitzen lagun dezakeen. (El pacto de cuidados. 2010-2021: La protección Integral Feminista en Mesoamérica desde la IM-Defensoras, 2022).

¹¹ Adibidez, Giza Eskubideen Defendatzaileen Ugandako Sareko Brenda Kugonzak dio defendatzaileen sare oso bat abiatu dutela IMDren adibideari jarraituz eta haren laguntzarekin. Bideoa (1:08:30): <https://im-defensoras.org/2022/12/presentacion-del-libro-el-pacto-de-cuidarnos/>

PBI Colombia

Bakerako guneak irekitzen

Babesik onena da norberaren lurraldean segurtasunez lan egiten jarraitzea ahalbidetzen duena.

PBI Kolonbia erakundeak¹², 1994. urteaz geroztik, nazioarteko behaketa- eta laguntza-lanak egiten ditu Kolonbian giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeentzat eta bertako gatazka armatuaren biktimentzat. Laguntza horren helburua giza eskubideen defendatzaileen ekintza-eremua babestea da, egiten duten lanagatik arriskuan daudenean.

Hainbat estrategia garatzen dituzte agerikotasun-maila handitzeko eta, horrekin batera, giza eskubideen defendatzaileei eraso egin nahi dietenak uxatzeko. Laburbilduta, munduaren begirada giza eskubideen aldeko erakundeen aldarrikapenetara eta borroketara erakartzean datza, horrela haien babes-maila areagotzeko.

PBI Kolonbiak herrialde horretako 18 erakunderi eta komunitate biktimari laguntzen die, nazioarteko boluntarioen edo brigadisten bitartez. PBik babeserako eta laguntza psikosozialerako tresnak eskaintzen dizkie erakunde eta pertsona defendatzaileei, beren burua babesteko gaitasunak sendotzeko eta indarkeria soziopolitikoak kalteturiko gizarte-sarea berreraikitzeke. Halaber, aldian-aldian tokiko, nazioarteko eta nazioarteko agintariekin biltzen dira, Kolonbian gertatzen diren giza eskubideen urraketekin loturiko kezken berri emateko.

PBik hainbat printzipioen arabera ematen du babesa, hala nola indarkeriarik eza, nazioarteko izaera, alderdikierarik eza (alderdi politikoei ez die laguntzen) eta esku-sartzerik eza; hots, laguntzen dituen erakunde horiek ez ditu finantzatzen, ez die aholkularitarik ematen eta ez du haien erabakietan parte hartzen. PBik erakunde kolonbiarrek eskatuta jarduten du. Horregatik, PBik ez du bere burua garapenerako erakundetzat jotzen, komunitateek beren jarduerak egiteko esparru propioa dutela

irizita.

Erakundeak, bere ekintza guztietan, genero-ikuspegiari eta ikuspegi interseksionalari heltzen die. Esate baterako, etnia bateko, komunitate bateko edo LGBTIQ+ komunitateko andrazko batek giza eskubideak defendatzen egiten duen lanarekin loturiko arriskuak ezin dira berean aztertu.

Andre defendatzaileak indarkeria bikoitzari egin behar dio aurre: giza eskubideen defendatzailea izateagatik eta emakumezkoa izateagatik. Ikuspegi feminista funtsezko tresna da andrazko defendatzaileek jasaten dituzten arrisku eta indarkeria zehatzak ulertu, identifikatu eta artatzeko. Horrez gain, ikuspegi horretan oinarrituta, berezitasun horiek artatzeko zein neurri hartzen ari garen galde diezaiokegu geure buruari, eta genero-indarkeria birsortzen eta normalizatzen ari garen azter dezakegu.

Defendatzailea izatea bizitza osorako konpromisoa da. Gizarte patriarkalak ezarritako estereotipoak haustea dakar berekin, desberdinkeria estrukturalen, zigorgabetasunaren, ustelkeriaren, krimen antolatuen, misoginiaren, lgbtifobiaren, gorroto-diskurtsoaren, estraktibismoaren, politika neoliberalen eta esparru demokratikoen itxieraren testuinguruan.¹³

¹² Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) erakundeak indarkeriarik eza sustatu, eta giza eskubideak babesten ditu, 1981etik. Egun, Kolonbia, Guatemala, Honduras, Indonesia, Kenya, Mexiko, Nepal eta Nikaraguan dihardu.

¹³ 1. kapitulua: Ser mujer defensora: <https://www.youtube.com/watch?v=KasGzMliNUE>

Mujeres Tejiendo Red

Guregandik guretzat

Mujeres tejiendo red — Emakumeak sarea ehuntzen Euskal Herrira migraturiko 47 andre guatemalarrak osatutako taldea da. Emakume, migratzaile, indigena eta etxeko langile izateagatik nozitzen dituzten trabak agerian jartzearen alde egiten dute, eta beren eskubideak ezagutzeko sareak eratzen dituzte. Sareok bat egiteko eta indartzeko tresna gisa baliatzen dituzte; aldi berean, kolektiboki sendotzen dira diskriminazioen, arrazismoaren eta indarkeria matxisten kontra borrokatzeko.

Isabel Hernández Castrokein eta Antonieta Caniz Chucekin hitz egin dugu. Isabel 2019tik da taldeko kide. Antonieta, berriz, duela bi aste eskas iritsi zen Guatemalatik.

2022ko abenduaren 13an eginiko elkarrizketa.

Nor dira Isabel eta Antonieta?

Antonieta: Ni Antonieta naiz eta Guatemalako naiz. Han, oilo erruleak hazten nituen, 60 neuzkan. Baina kontzentratua garestitu egin zen, jada ez dute arrautza-kartoia ordaintzen... dena garestitu zen. Eta orain hemen nago, Euskal Herrian.

Isabel: Ni Isabel Hernández Castro naiz, maia kitxe herrikoa, Guatemalako iparraldeko mendebaldekoa. Identitate-aldeetik naiz hangoa, maia kitxe herrikoa, baina Guatemalako hegoaldeko kostaldean hazi nintzen. Herrialdeko barne-gatazka armatuan, nire familia lekualdatua izan zen; bizitza babesteko alde egin behar izan zuen, eta lurraren alde eskubidetzat jota borrokatu zen.

Migrazio-prozesu orok ausardia itzela eskatzen du, baina baita laguntza handia ere. Zuen kasuan, izan duzue laguntzarik? Zuen migrazio-prozesuan babestuak eta lagunduak sentitu zarete?

A: Bai, nire kasuan bai, Mujeres Tejiendo Red taldean. Ezer jakin gabe etortzen zara hona, eta nik denbora gutxi daramat kolektiboa ezagutzen, baina

orain arte nire amak dioena sentitu dut: “Horra joanda, indartsuago sentituko zara”.

I: Nire kasuan desberdina da, guk Guatemalan indarkeriatik, gerratik... bizirik ateratzeko migratu behar izan genuelako. Nomadak bezala, batetik bestera ibili ginen. Migrazioa, nolabait, naturala zen, naturalizatua. Baina familia ondoan izanik, komunikazio-kode eta esamolde bertsuak erabiltzen direla jakinik, migrazioak ez zirudien prozesu gogorra.

Aldiz, lurralde hauetara migratutakoan, badira komunikazio-keinu eta -kode ezezagunak, askotan testuinguru jakin batean jokatzeko modurik egokiena zein den ez dakien mutikoa edota neskabila bagina bezala sentiarazten gaituztenak. Hori dela eta, migrazio-prozesua pixka bat gogorragoa da, batez ere bakarrik etorri zera, familiarik eta alde aurreko laguntzarik gabe.

Lagunek eta senideek babestuak eta lagunduak sentitu zarete, baina, era berean, erakundeen aldetik zenbait oztupo bizi izan dituzue.

A: Bai. Aireportuan, esaterako, erregistro handia dago. “Zertara etorri zara? Zergatik hona eta ez beste herrialde batera?” galdetzen zidaten Madrilan. Nik erantzuten nien turista nintzela eta bakoitzak ezagutu nahi dituen tokiak bisitatzeko eskubidea duela, baina zera ihardesten zidaten: “Zu ez zara turista, zu lanera etorri zara eta ezagunak dituzu hemen”. Gela batean sarrarazi ninduten elkarrizketa egiteko. Jende dezente ginen, ez ni bakarrik, eta banan-banan galdetu ziguten. Niri neuri ea hotelik erreserbatuta nuen, eta nik baietz. Nire pasaportearen zigilua jarri, eta handik irten nintzen. Denok atera ginen, baina ez gaituzte pareko gisa tratatzen. Eta galtzak nituen jantzita, nire jantzia izan balitz... nekezago utziko zidaten pasatzen.

I: Nire ustez, osasun-sistemarekin ere talka gogorra gertatu ohi da, gure herrialdekoaren bestelakoa delako. Lehenengo 3 hilabeteetan, turista gisara egon zaitezke hemen, eta gero paperak banatzen

hasten zaizkizu. Ni dena erregistratuta etorri banintzen ere, lehenengo hiru hilabeteen barruan gaixorik jarri nintzen eta ospitaleko larrialdietara heldu nintzenez ordaindu egin behar nuela esan zidaten, 77 euro zirela uste dut, diru-kopuru handi samarra. Nik banekien zer nuen, otitisa, eta antibiotikoak behar nituela ere bai, baina ezin nintzela sartu esan zidaten. Botikan, ez zidaten antibiotikorik eman. Oraindik nire egoera legezatzan ari banintzen ere, ez nuen zertan lehen 3 hilabete horiek aseguru bat ordaintzen eman.

Halako kasuetan, migrazio-prozesu osoaz gain, lehen une horretan oinarritzko premia oso garrantzitsua da, pertsona gaixorik dagoenean oso egoera zaurgarrian ere badagoelako.

Mujeres Tejiendo Red taldean, kolektibitatearen eta gune komunitarioen bidez sareak eratzen dituen kolektibotzat duzue zuen burua, eta, orobat, harreman sakona duzue zuen herrialdearekin eta mundu-ikuskerarekin. Zer-nolako garrantzia dute andre migratu guatemalarrak andre migratu guatemalarentzat sorturiko kolektiboek, esparru propioek?

I: Nik uste dut esparru propioak garrantzitsuak direla, familiarrean sentiarazten gaituztelako, eroso. Izan ere, gutako bakoitza hona zein egoeratan iritsi den alde batera utzita, denok migrazio-prozesua bizi izan dugula jakitea oso aberasgarria da, eta horrek batu egiten gaitu. Eta oso polita da –baita beharrezkoa ere– kolektibo jakin batera ezer azaldu behar izan gabe joatea. Gu, hasiera batean, emakumeak izan daitezten saiatzen gara, eta guztiak Guatemalakoak, Guatemalakoak baino ez. Esklusiboa da, agian? Bai, baina horretarako badaude beste kolektibo batzuk. Guatemalako neskekin soilik egongo garela erabaki dugu, elkarri laguntzeko. Etxe barruko langile jarduten duten kideen gehiengoaren zailtasun guztien artean, “janaria partekatuko dut” esan ahal izatea, adibidez. Edo faltan sentitzen den zerbait ere partekatzea, jakin badakidalako nire sorterritik gogoan dudana ez dela nirea bakarrik, baita besteena ere. Elkartze hori da, xehetasun txiki horiek, badakit azaldu gabe ere ondo geratuko eta ondo egongo naizela.

A: Kolektiboak gure eskubideak ezagutzen laguntzen digula ikusteko adibide zehatz bat jartzearren: aurreko batean, kide batek zera esan zion beste bati:



Mujeres Tejiendo Red elkarteko argazkia.

“Zaintzen dudan andreak zergatik bainatzen naizen galdetzen dit, ur asko gastatzen dudala dio”. Beste kidearen erantzuna: “Bainatzeko eskubidea duzu. Zergatik ez diozu esaten zuri bost axola zaizula bera bainatzen den ala ez, baina zuk bainatu beharra duzula? Zure gorputza da eta hori egiteko eskubidea duzu, indartsua izan behar duzu, esan egin behar diozu”. Eskubide hori berezkoa duela jakinarazten ari zitzaion.

“Nire aburuz, patriarkatuari eta kapitalismoari aurre egiteko erabil ditzakegun tresnetako bat geure burua zaintzea da, ukatu egin zaigulako.”

Nork bere eguneroko bizimodua garatzen jarraitzeko, norberaren zaintza funtsezkoa dela ere aipatu duzue. Halere, maiz, andrazkook ez dugu geuri dagokiguna zaintzen, gehiago gaudelako besteentzat geure buruarentzat baino. Mundu honetan, non erdigunean ez diren ez zaintzak ez emakumeak jartzen, norberaren zaintzek zein garrantzi dute emakumeentzat?

I: Nire aburuz, patriarkatuari eta kapitalismoari aurre egiteko erabil ditzakegun tresnetako bat geure burua zaintzea da, ukatu egin zaigulako. Guk norberaren zaintza kontu kolektibotzat jotzen dugu, sendaketa gauza komunitarioa dela uste dugu. Guk geuk entzuten diogu geure buruari, norbaitek zerbait behar duenean hor gaude, gure pozak, atsekabeak eta tristurak konpartitzen ditugu. Pixkanaka, sare hori eratzen dugu, poliki-poliki andreentzat ongi egotea zein garrantzitsua den ikusaraziko duen konfiantza hori, baina baita sistema patriarkalari baditugula beste bizimodu batzuk, beste tresna batzuk, erakusteko ere. Horri buruz, sozialki hitz egin beharra dago, ezin diegu medikuei bakarrik utzi, ezta gure digestio-sistema ezagutzen duen nutrizionistari ere, esaterako. Geure gorputza ezagutu behar dugu, eskura ditugun trebetasunen eta jakintzen arabera zaindu, eta aztertu nire herrialdeko zein gauza izan daitezkeen baliagarriak hemen ere.



Migrazio-prozesua abiatu duzuen andreak zareten aldetik, zer eskatuko zeniekete harrera-jendarteei, GKE-ei, administrazioei?

A: Laguntza. Denok dugu nahi dugun lekura bidaiatzeko eta lan-aukera berdinak izateko eskubidea. Nik berdintasuna eskatzen dut, nagusiki. Ez gara berdin janzen, baina berdinak gara. Erakundeei, orobat, ez abandonatzeko, gure ondoan egoteko, edo migratzaile gehiago batzeko, kideak esan bezala beldurrez etortzen garelako.

I: Bai, migratzea eskubide unibertuala da, eta hala onartu eta errespetatu behar da.

Euskal gizarteak gureak ez bezalako egitura tradizionalak ditu –betiko kuadrillak–. Ez da txarra, baina planifikaturik ez zegoen arren egun hemen dauden beste errealitate horiei, izaki berri horiei, bide emateko modua aztertu beharko litzateke.

Era berean, hemengo gizarteak berari buruzko hausnarketa egin beharra dauka, gainerako jendeak bere lurra uzteko zer egiten ari den aztertzeko. Esate baterako, besteren artean Iberdrola enpresak, Bilbon kokatuak, hidroeletrikoak ditu Guatemalan. Horretarako, hango komunitate batzuk beren lurraldetik kanporatuak dira, lurra kentzen zaizkie edo pertsona batzuk hil ere egiten dituzte.


Eta etxebizitzaren gaia arazo ikaragarria da. Izan ere, kideek, etxeko lanik aurkitzen ez badute, non bizi bilatu behar dute, eta hori, azkenean, lotura bilakatzen da, sarritan beren eskubideen urraketa jasanarazten diena. Urraketa hori gertatuz gero hartuko lituzkeen harrera-etxerik balego, batez ere etxe barruko langile jarduten duten andreentzat, aske sentituko lirateke bortizkeria pairarazten dien etxea uzteko. Horrela, bien bitartean, beste lan bat bila lezakete, edo baita beren burua sendatu ere, indarkeria-prozesua gogorra eta konplexua ere izan daitekeelako.

Egungo etxe edo programen bestelakoak esan nahi duzu?

I: Edozeinek ez du Bilbon dagoen giza eskubideen defendatzaileen programan parte hartzeko aukera, adibidez. Aurrena, paper asko bete behar dituzu, eta polizia jarritako salaketa bat izan behar dela ere esaten digute, baina hemen bazaude ezinezkoa da Guatemala joatea, eta han izapideak egiten dituztenei ordaindu beharrekoa une honetan egin ezin dugun gastua da. Kate bat da.

Baina etxeek ahalmenik ere ez dute. Defendatzaile asko eta asko sartzen direnez, ezin dute askoz ere jende gehiago hartu. Horrez gain, nahiz eta programa hauek kide zehatz batzuk artatu –baliteke zein egoeratan bizi diren apur bat ikusarazten laguntzea–, zenbait askatasun ukatu egiten dizkiete, programa jakin batzuetan daudenean ezin baitute lanik egin, adibidez. Eta defendatzaile horiek seme-alabak izan ohi dituzte, beraz, nola moldatzen dira rol hori betetzen jarraitzeko, urrun egoteak edo diru-sarrerara jakin batzuk ez izateak dakartzan mugak izanik?

Mugatzaile asko daude. Asilo politikoari dagokionez, esaterako, eskaera-prozesua nork ebazten duen, onartuko dizute ala ez. Azkenean, askoz errazagoa da gizartean sustraiturik egotea; hain zuzen ere, bide horretatik sartu ohi dira kide ugari. Eta, hemen igaro beharreko denboraren eta irregulartasunaren aldetik pixka bat garestiagoa izan arren, azkenean irtenbide apur bat irekiagoa da.



Aldi baterako harrera-baliabideak Espainiako estatuan

Birkokatze edo aldi baterako hartzeko programak estrategia zabalagoaren parte dira; hots, babes integralaren osagai dira, eta, batik bat, azken neurria toki- eta nazio-mailako beste babes-modu batzuk agortu ondoren. Defendatzaileak beren arrisku-eremutik kanpo egoteko lekuak dira. Helburu nagusia da hartutako pertsonen segurtasun- eta ongizate-baldintzak hobetzea. Horretarako, babes, norberaren zaintza eta norberaren herrialdeko testuinguruaren eta giza eskubideen urraketaren salaketa biltzen dituzten jarduerak egiten dira. Arriskua murriztea lortzen da, atentatuak eta jasaten ari diren jazarpena desaktibatuta, eta norberaren zaintzarako eta prestakuntzarako tresnak jasota. Programa batzuen barruan, osteko jarraipena ere badago, pertsona bere ingurunera itzuli ondoren.

Ikusi dugun moduan, arnasa hartzeko eta nork bere burua zaintzeko esparruak funtsezkoak dira defendatzaileek beren lana egiten jarraitu ahal izateko. Espainiako Estatuan, hainbat baliabide daude defendatzaileak aldi baterako hartzeko, EBk giza eskubideen defendatzaileei buruz ezarritako ildoak jarraikiz¹⁴ eta Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailearekin lerrotuta¹⁵.

Jarraian ageri den mapan, gure lurralderik hurbilenean dauden harrera-baliabide eta -eremu batzuk jaso nahi izan ditugu. Zehaztu beharra dago mapan ez direla agertzen defendatzaileek beren arrisku-eremutik irteteko baliatzen dituzten bitarteko guztiak, kasu eta une bakoitzaren arabera desberdinak baitira.

Mapan jasotakoek irizpide hauek betetzen dituzte:

- **Aldi baterako egonaldia** egiteko dira, norberaren lurraldetik irtetea azken aukera delako premisatik abiatzen garelako eta, alde egitea tokatzen zaienean, defendatzaileek beren lurraldera itzultzeko ikusmoldearekin egiten dutelako.
- Zehazki **defendatzaileentzat** dira. Hori dela eta, ez dugu jaso migratzaile eta errefuxiatuentzako programarik, esaterako, nahiz eta jakin badakigun

zenbait defendatzailek bide hori hautatzen dutela beren lurraldetik aldi baterako joateko, une horretan egingarriena delakoan.

- **Babesa**, segurtasun-profila areagotzeko edota arnasa hartzeko eta norberaren zaintzarako gune izateko helburua edukitzea. Hortaz, ez ditugu jaso sentsibilizatzeko eta eragiteko jarduerak bakarrik egiten dituzten programak, Ciutats Defensores dels Drets Humans programa¹⁶ edo Herri Babesarea ekimena¹⁷, kasurako.


Bide batez, lerro hauen bidez irizpide hauek bete ez arren giza eskubideen defendatzaileak babesten eta defendatzen berdin laguntzen duten beste gune asko txalotu nahi ditugu, eskerrak ematez batera.

¹⁴ "Neurri azkarrak aurreikustea hirugarren herrialdeetan arriskuan diren giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta laguntzeko; adibidez, bisa urgenteak emanez, dagokionean, eta EBko Estatu kideetan hartuak izan daitezzen sustatuz." Giza eskubideen defendatzaileei buruzko EBren ildoak.

¹⁵ "Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak bultzatuko dira". Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea 2018/2021

¹⁶ Web orria: <https://ciutatsdretshumans.cat/>

¹⁷ Web orria: <https://herribabesarea.eus/>



MAPA HONEN DATUAK:

— Erakunde-programak

— Programa autogestionatuak

Noiz hasi zen – nork kudeatzen du

Hasi zenetik artatutako pertsonen kopurua

Programaren gaitasuna eta egonaldiaren iraupena

👥 = Defendatzaileen esku dauden familiak artatzeko aukera ere badu

* Bestelako irizpideak

Baliabideen analisisia

Programa guztiak defendatzaileentzat badira ere, batzuk profil zehatzago batera bideratuta daude. Zenbaitek jatorri jakin bateko pertsonak hartzen dituzte (Kolonbiako edo Mexikoko pertsonak hartzen dituztenak nabarmentzen dira), eta beste batzuek aktibismo-profil mota bat lehenesten dute, hala nola kazetariak edo lurra eta lurraldea defendatzen dituzten pertsonak. Programen berezitasun hauen arrazoiak hainbat izan daitezke: giza eskubideen defentsari begira segurtasunik ezaren munduko indizerik handiena duten lurraldeak eta aktibismoak izatea, edota, esate baterako, lurralde eta erakunde jakin batzuekiko harreman historikoak edo programa bakoitzaren harrera-gaitasunak eurak.

Oro har, harreran hartutako emakumeen eta gizonen proportzioa nahiko antzekoa da (77 andrazko eta 86 gizonezko, kontuan hartu gabe Kolonbiako Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Asturiasko Programa (PAV), Defenreden Atsedean Etxea eta Basoa, ez baitugu generoaren arabera banakaturiko haien daturik). Programa bakoitzaren arabera proportzioari erreparatuta, badaude alde handiak, eta horien artean nabarmengarriak euskal programa (18 emakume eta 9 gizon) eta Amnesty Internationalena (26 andre eta 51 gizonezko) dira. Interesgarria litzateke desberdintasun horien arrazoiak aztertzea eta kopuruak beste faktore batzuekin gurutzatzea. Adibidez, jatorrizko herrialdearekin lotuta genero-desberdintasunik dagoen; edo ardurapeko familiekin datozen emakumeen eta gizonen proportzioan alderik dagoen. Gure iritziz, agiri hau osatzeko kontsultatutako testigantzetan eta iturrietan oinarrituta, ardurapeko familiak hartzeko aukera emakumei honelako baliabide-motetz baliatzea errazten dien faktoreetako bat da. Azterketa sakonagoak andrazkoek eta gizonezkoek programa hauek baliatzeko duten ahalmenean zein beste faktorek eragiten duten jakitea ahalbidetuko liguke, horrela gero guztiak berdin babestea bermatuko duten estrategiak ezarri ahal izateko. Azken finean, Espainiako Estatuan aldi baterako harrera-guneen mapak eskaria genero-joerarik edo beste mota

batekorik gabe asetzen duen aztertzean datza.

Azkenik, interesgarria litzateke, era berean, programen eraginkortasuna aztertzea, hau da, zer gertatzen den defendatzaileekin egonaldia bukatzen zaienean, bai eta aldi baterako joan izanak zernolako eragina izan duen ere beren lurraldean. Horretarako, aztertu beharko litzateke zenbat lagun itzul daitezkeen gero beren lurraldera, arrisku-maila murriztea lortu den, egoera horrek denboran iraun duen eta beren kolektiboen edo komunitateen borrokan eraginik izan duen.



Zer egin dezakete erakundeek?

Agiri honi amaiera emateko, hainbat gomendio egin nahi dugu, lan hau egin bitartean bildu ditugun ekarpen eta gogoeten emaitza.

Erakundeen betebeharra da giza eskubideen errespetua bermatzea eta defendatzaileak babesteko neurriak sustatzea¹⁸, eta horrexegatik gomendatzen diegu honako hau:

- Babes-neurri zehatzak bultzatzea, hala nola laguntza- eta harrera-programak, defendatzaileekin eurekin batera diseinatuak haien beharrak asetzeko.
- Bermatzea merkataritza- eta inbertsio-jarduketa guztiek eta kanpo-politikako beste arlo batzuetakoek ez dutela sustatuko komunitateen eta defendatzaileen aurkako erasorik. Horrek ingurumena eta hura defendatzen dutenak kaltetzen dituzten inbertsio-proiektu eta-ekimenetan ez parte hartzea eta halakorik ez finantzatzea dakar berekin.
- Enpresen eta korporazioen lana ikuskatzea, eta giza eskubideak urratzen dituztenean salatzeke eta zigortzeko ekintzak abiatzea, hala atzerriko enpresen kasuan nola beste lurralde batzuetan diharduten Estatuko enpresak direnean.
- Eskakizun burokratikoak arintzea eta malgutzea, beharrei benetan erantzuteko.

Lehenik eta behin, erantzuteko denborak murriztuz. Batzuetan, migrazio-izapideak luzeegiak dira, eta larrialdi-egoerei erantzuteko ezgai; esaterako, pertsona batek arrisku-maila handia duenean eta azkar alde egin behar duenean.

Bigarrenik, egonaldiaren hasieratik lan-baimenak emanaz. Izan ere, egonaldia aldi baterako izan arren, defendatzaileen euren eskaeretako bat lan egin ahal izatea da, familia mantentzen jarraitu ahal izateko. Hori bermatu ezean, defendatzaile askok, nagusiki emakumeek, nahiago dute babes-

bide hauetara ez jo.

- Mehatxuak eta erasoak egiten dituztenak nabarmentzea, ez horiek jasaten dituzten pertsonak. Bortitza da pertsonarentzat pairatzen dituen erasoak eta mehatxuak frogatu behar izatea, eta beti ez dira izaten indarkeria hauek frogatzen dituzten eta programez eta baliabideez baliatzeko eskatzen zaizkion frogak.
- Nazioarteko Lankidetzako funtsak eta baliabideak gizarte-sarea eta bai gizarte-mugimenduen bai komunitateen babesa sendotzeko erabiltzea, eta funtsak migrazio-kontrolari bideratzeari uztea¹⁹. Prebentzio-lana eta gizarte-oinarriak indartzeko epe laburrerako ekintza eta larrialdikoa bezain garrantzitsuak dira defendatzaileak babesteko.

Neurri eta jarduketa hauetan guztietan **ikuspegi feminista eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia** txertatuta egon behar dira, eta **arrazoietara jo** behar da.

Ikuspegi feministak emakume defendatzaileek dituzten berariazko arazoak antzematea ahalbidetzen du, eta indarkeriaren eta genero-diskriminazioaren eraginari heltzea. Horrez gain, zaintzak erdigunean jartzera eramaten gaitu, egiturak eta programak logika horretan oinarriturik birkonfiguratu.

Eta arrazakeriaren aurkako ikuspegiak aditzera ematen digu munduko Hegoaldeko pobretzea kolonialismotik datorrela eta arrazakeria duela sostengu. Egungo eredu sozioekonomikoak kolonialismoko logika berari jarraitzen dio: aberastasun ekonomikoa eta botere politikoa geografikoki Iparraldean metatzea justifikatzen du, baliabideen espoliazioa Hegoaldean, eta arrazializaturiko gorputzen esplotazioa. Ondorioz, biztanle batzuek eskubideak dituzte eta beste batzuek ez. Hortaz, beharrezkoa da programek ikuspegi dekoloniala ere izatea, defendatzaileek migrazio-prozesuan nozitzen dituzten indarkerien ibilbide historikoari heldu ahal izateko.

Defendatzaile bat hartzen edo haren arrisku-egoeraren berri izaten denean, bere lana zergatik ezin duen segurtasunez egin aztertu behar da. Ez da nahikoa babesa eta laguntza eskaintzea. Arriskua sortzen duten arrazoiatar jo ezean, ezin da bermatu pertsona bere ingurunera segurtasun-maila handiagoz itzultzea. Hala ere, arriskuak sistematikoak eta estrukturalak izan ohi direnez, arrazoiatar jozteko eta horietan jarduteko urraketen eta erasoen enpresa erantzuleak zein diren jakin beharra dago, eta, sarri asko, gure lurraldekoak dira. Hortaz, erantzukizunak eskatu behar ditugu, eta geure kontsumo-eredua zalantzan jarri, beste lurralde batzuen espoliazioan eta beste bizimodu batzuen suntsipenean oinarrituta dagoelako.

Defendatzaileentzako **harrera-programei** dagokienez, ikuspegi feminista eta arrazakeriaren aurkakoa txertatzeaz eta arrazoiatar jozteaz gain, honako neurri hauek jaso beharko lituzkete:

- Programak andre defendatzaileek eurek eta beren sareek bultzatzea. Harrera GGKE-ek eta migratzaileen kolektiboek egitea, beren borrokak eta jatorrietako errealitatea ezagutzen baitituzte, kultura- eta gizarte-talka ez dadin hain gogorra izan.
- Arreta pertsonalizatua, pertsona bakoitzaren beharretara egokitutako esparruak eta haren kulturara egokitutako beste jarduteko eta egoteko modu batzuk abiatuta. Esate baterako, babes-beharra izanik bakarrik egon nahi ez duten pertsonentzako gune kolektiboak, edo hirietatik urruneko berdeguneak lurraekin lotura estua dutelako harreman horren beharra duten pertsonentzat.
- Familiak ere hartzeko aukera aintzat hartzea, emakumeek baliabideak eskuragarriago izan ditzaten. Andre defendatzaileen kasuan, haien familiak ere mehatxuen jomuga izaten dira, eta haietako askok, ezin badute seme-alabekin etorri, ez dute programetara jotzen.
- Defendatzaileak banan-banan artatzeaz harago joatea; haiek daude ikusgai, baina komunitatean aukeratzen dituzte, eledunak dira, kolektibo oso baten ordezkariak. Nahiz eta programa batean pertsona edo familia bakarra hartu, haren borroka eta aldarrikapenak bere komunitate osoarenak dira. Komunitateari ere lagundu behar zaio, loturak eta konpromisoak sortuz, behatzeko eta laguntza emateko ordezkari bat bidaliz, adibidez.
- Defendatzaileen ahotsari zilegitasuna ematea eta paternalismoa baztertzea. Ez jartzea zalantzan haien kontakizunak eta nozitzen dituzten indarkeriak, eta hautematen duten arrisku-maila legitimatzea. Agenda elkarrekin eratzeari, haien analisis oinarrituta, haien hitzaz jabetu gabe, eta subjektu politiko eta aktibotzat jota.
- Zaintza erdigunean jartzea. Pertsona bakoitza min asko jasanda etortzen da, eta migrazio-prozesuak ere oso mingarriak dira. Laguntza psikologikoa eta psikosoziala ematea beharrezkoa da norberaren zaintzarako estrategiak ezartzen lagunduko duten tresnak izateko, betiere pertsona bakoitzaren erritmoak errespetatuta.
- Sarean lan egitea. Espainiako Estatuko programen eta beste estrategia batzuen artean ibilbideak eta protokoloak eraikitzea, erakundeen intzidentzian eta gizarte-sentsibilizazioan eragin handiagoa lortzeko. Halaber, Iparraldeko-Hegoaldeko erakundeen arteko lankidetzak zabaltzea, borrokak bat eginez eta hemengo borrokak hangoak ere badirela jabetzera bultzatuz.
- Autokritikarako gaitasuna izatea eta norberaren jardunbideak aztertzea. Defendatzaileak babesteko programak, gizarte-mugimenduak bezala, ez dira esparru idilikoak. Hor ere badira logika patriarkal eta diskriminatzailea birsortzen duten botere-harreman eta -jardunbideak eta ekintzak. Horiek antzemateko eta eraldatzeko, hausnarketarako guneak gaitu behar dira.

Babes-eredu integral baterantz

Aipatu neurri eta estrategia hauek guztiak gizarteko gainerako eremu eta dinamiketara hedatu litezke. Harrera-programak eta epe laburrerako neurriak oso beharrezkoak dira, batzuetan pertsona batek bizirik jarraitzea edo hiltzea erabaki dezakete, baina, **eredua eraldatu** ezean, ez dira nahikoa. Defendatzaileen aurkako indarkeria sortzen duten arrazoietan eragin gabe, pertsona horiek jasaten dituzten arriskuak ez dira sekula murriztuko, eta indarkeria pairatzen eta bizitza salbatzeko beren lurraldeetatik deserriratuak izaten jarraituko dute.

Iparraldeko gizarteetan, ezinbestekoa da eredu aldatzea, beste lurralde batzuk esplotatuko ez dituen eta zaintza erdigunean jarriko duen bestelakoa ezartzeko. Horretarako, honako hauen aldeko apustua egiten dugu:

- Lurraldeari berari eta bertako baliabideei loturiko ekonomiak, ez direnak beste lurralde batzuen espolioazioaren mendekoak izango.
- Herrien eskubidea beren baliabideak nola kudeatuko dituzten eta zer-nolako gizarte-eredua eraiki nahi duten erabakitzeke, egitura eta esparru parte-hartzaileak edukirik. Ildo horretan, energia- eta elikadura-burujabetasunerako proposamenak nabarmengarriak dira.
- Gure kontsumo-eredua urritzea, energia eta materialak murriztea, aberastasuna eta baliabideak banatzeko, eta pertsona guztiok bizi-maila duina izatea bermatzeko. Eta gure bizi-erritmoa, nekearen kulturak zeharkatua, moteltzea, bizi-kalitate hobea izan dezagun.
- Nagusi diren balioak aldatzea, eta jendarte anitz, plural eta inklusiboak sustatzea, bizimodu guztiak errespetatuta.

Hasieran ongi zehaztu dugun bezala, agiri hau gaiarekiko hurbilketa da, gizarte-eztabaidari ekarpena egiteko ahalegina. Giza eskubideen andre defendatzaileen babesaren eta harreraren gaineko zenbait zertzelada jaso ditugu hemen, jakinaren gainean kontu franko dagoela gogoeta egiteko eta

hobeto ezagutzeko. Nolanahi ere, ideia hauek prozesuren bat hasteko bidea ematen badute, gure gomendioa da defendatzaileekin eurekin batera egitea, haien beharrak eta aldarrikapenak beren ahotik aditzea.



¹⁸ Giza eskubideen defendatzaileei buruzko EBren ildoak.

¹⁹ Migrazio-kontrolerako funtsen zati bat garapenerako lankidetzarako funtsetatik dator. Adibidez, EBk Afrikarako duen Larrialdietarako Funts Fiduziarioko diruaren %22 migrazio-kudeaketara bideratzen da. Legez kanpoko migrazioaren aurkako borrokari dagokionez, jakinarazi beharra dago Europar sartzan diren pertsonetatik %4,5 besterik ez dagoela legez kanpoko egoera administratiboan (Porcausa / Público, 2020). Espainiako Estatuan egoera horretan dauden migratzaileetatik ia %80 Latinoamerikakoak dira eta %10 baino gutxiago Afrikakoak (Villarino, A. 2020); hori ez dator bat Saharaz hegoaldeko Afrikako eta herrialde arabiar-musulmanetako pertsonak hona iristeko erabiltzen saiatzen diren muga espainiarrak blindatzeko baliaturiko diru-kopuruarekin.

Erreferentziak

- Alpizar, L. López Cruz, M. eta López Deloya, E. (2021). *Des-hilar la crisis. Tejer futuros. Impactos de COVID-19 sobre la vida y las luchas de las defensoras mesoamericanas de derechos humanos*. <https://im-defensoras.org/2021/06/des-hilar-la-crisis-tejer-futuros/>
- Área de reconstrucción del tejido social (ARTS) de PBI Colombia. (2020). *Cajas de herramientas: análisis de riesgo para personas defensoras*. <https://pbicolombiablog.org/publicaciones/cuadernos-del-area-de-apoyo-a-la-reconstruccion-del-tejido-social-arts/>
- *Defender derechos en tiempos de covid. Balance regional de las condiciones para la defensa de derechos humanos y la libre expresión en México y Centroamérica*. (2020). <https://im-defensoras.org/2020/04/como-nos-afecta-covid-19-a-las-defensoras/>
- Equipo regional de registro IM-Defensoras (2021). *Tendencia en defensoras de tierra, territorio y justicia*. <https://im-defensoras.org/2021/08/informe-tendencia-en-defensoras-de-tierra-territorio-y-justicia/>
- García Torres, M. (2018). *El IBEX 35 en guerra contra la vida. Transnacionales españolas y conflictos socioecológicos en América Latina. Un análisis ecofeminista*. Ecologistas en acción. <https://www.ecologistasenaccion.org/35720/informe-ibex-35-guerra-la-vida/>
- Global Witness (2020). *Defender el mañana. Crisis climática y amenazas contra las personas defensoras de la tierra y del medio ambiente*. <https://www.globalwitness.org/es/defending-tomorrow-es/>
- Global Witness (2022). *Una década de resistencia. Diez años informando sobre el activismo por la tierra y el medio ambiente alrededor del mundo*. <https://www.globalwitness.org/es/decade-defiance-es/#a-global-analysis-2021-es>
- González Pazos, J. (2022). *Bizitza jokoan. Giza eskubideak eta naturaren eskubideak urratuta*. Mugarik Gabe. <https://www.mugarikgabe.org/eu/bizitza-jokoan-kongresua/>
- Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. (2019). *Guía de acompañamiento*. <https://im-defensoras.org/2019/04/guia-de-acompanamiento-casa-la-serena/>
- Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. *Medidas imprescindibles para garantizar la protección y el liderazgo de las Defensoras de Derechos Humanos*. (2021). <https://im-defensoras.org/2021/03/llamado-a-suscribir-medidas-imprescindibles-para-garantizar-proteccion-y-el-liderazgo-de-las-defensoras-de-derechos-humanos/>
- Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. (2022). *El pacto de cuidarnos. 2010-2021: La protección Integral Feminista en Mesoamérica desde la IM-Defensoras*. <https://im-defensoras.org/2022/12/el-pacto-de-cuidarnos-2010-2021-la-proteccion-integral-feminista-en-mesoamerica-desde-la-im-defensoras/>
- Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos. (2022). *Entre aguas Dulces y Mareas. 10 años de construcción y aprendizaje sobre el cuidado y la sanación entre defensoras y sus colectividades*. <https://im-defensoras.org/2022/05/entre-aguas-dulces-y-mareas-10-anos-de-construccion-y-aprendizajes-sobre-el-cuidado-y-la-sanacion-entre-defensoras-y-sus-colectividades/>
- Lima, I. eta Gutiérrez, M. (2020). *Tokiko erakundeak giza eskubideak babesteko duten betebeharra*. Herri Babesarea. <https://herribabesarea.eus/txostenak/>
- López Cruz, M. (2018). *La protección a defensores y defensoras de derechos humanos en Latinoamérica desde una mirada feminista*. <https://justassociates.org/es/all-resources/la-proteccion-a-defensores-y-defensoras-de-derechos-humanos-en-latinoamerica-desde-una-mirada-feminista/>
- PBI Colombia. (2020). *Historias de defensa y resistencia*. <https://pbicolombiablog.org/publicaciones/cuadernos-del-area-de-apoyo-a-la-reconstruccion-del-tejido-social-arts/>
- *Programa vasco de protección para defensoras y defensores de derechos humanos*. (2018). Secretaría General de Derechos Humanos, Convivencia y Cooperación. Dirección de Víctimas y Derechos Humanos. Gobierno Vasco. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/Programa-defensores.pdf
- Villegas Fuentes, A. y Galán Santamarina, A. (2020). *20 años defendiendo la vida. Evaluación del impacto psicosocial del Programa Asturiano de Atención a Víctimas de la Violencia en Colombia (PAV) en su XX Aniversario*. C.M.P.A. <https://pav-asturcolombia.org/multimedia/>

